

GAI MONOGRAFIKOAK | 56

# Faxismo eta autoritarismoen berpiztea

## Perspectivas de la involución

MANU ROBLES-ARANGIZ FUNDAZIOA

APIRILA 2019 ABRIL

# AURKIBIDEA

Mozorroak eranzten
Aiala Elorrieta ........ 3

**1. Faxismoaren askotariko soslaiak ........ 4**

Una derecha sin complejos
Yayo Herrero ........ 4

Eraldaketa handia
Karl Polanyi ........ 7

Hannah Arendt en su centenario
José María Pérez Gay ........ 10

**2. XXI mendeko autoritarismoak faxismo ote? ........ 12**

Demokraziak hil ere demokratikoki hiltzen dira
Boaventura de Sousa Santos ........ 12

Decir “fascismo” confunde y despolitiza
Raúl Zibechi ........ 15

**3. Eta Europan zer? ........ 17**

**Ane Irazabal:**
Europa klase ertain, zuri, zahar eta haserretua bilakatzen ari da
Nagore Uriarte ........ 17

Una filosofía basada en el desprecio
Bernard Pudal ........ 19

Ezkerreko populismoa Erresuma Batuan
Chantal Mouffe ........ 23

Vox, populismotik baino faxismotik hurbilago dagoen sorkari txit espainola
Beñat Zaldua ........ 26

**4. Eta Euskal Herrian autoritarismoaren arrastorik ba ote? ........ 29**

Corporatismo, anticolectivismo y otros ismos en la involución antidemocrática
Xabi Anza ........ 29

Faxismoa: zer da, nondik dator eta nola aurre egiten hasi
Hedoi Etxarte ........ 32

**5. Aliantzak, intersekzioak ........ 34**

Zapalkuntzarik gogorrena, nirea
June Fernández ........ 34

**Nancy Fraser:**
El populismo es una revuelta de los atropellados por el neoliberalismo progresista
Shray Mehta ........ 37

¿Por qué el feminismo relacional es un antídoto frente a la extrema derecha?
María Eugenia Rodríguez Palop ........ 40

Gomendioak ........ 42

**Barrainkua 13, 6.**
**48009 BILBO**
fundazioa@ela.eus
@mrafundazioa
www.mrafundazioa.eus

**MANU ROBLES-ARANGIZ**
FUNDAZIOA

# Mozorroak eranzten

**Aiala Elorrieta**
Manu Robles-Arangiz Fundazioa

Indar faxista eta autoritarioen gorakadaren aurrean ezinbestekoa da faxismoa zer den eztabaidatu eta hausnartzea, bere sakonean ezkutatzen diren alderik ilunenak argitara ekarri eta horrela, faxismo zaharrek eta berriek partekatzen dutena ikusi ahal izateko.

Bilduma honen lehen atalek helburu horri heldu diote: faxismoaren soslaiak irudikatu nahi izan ditugu ta XXI mende honetan zein gorputz eta itxura hartzen duten perfilatzeko.

Eginkizun honek derrigortu gaitu demokraziaren mozorroa jantzita duten hainbat indar politiko larrugorritu eta agerian uztera.

Izan ere, mundu zabalean ditugun muturreko autoritarismo esperientziak aztertzearekin batera, hain muturrekoak ez diren bestelako kasuak taxuz identifikatzera garamatza. Ultra eskuineko alderdi berri eta ez hain berrien gorakadak, ekarri du posizio zentralagoetan kokatu izan diren indar politikoen jarrera eta jokaldiek geroz eta kutsu autoritarioagoa izatea. Muturrekoak diren esperientziek (Bolsonaro, Trump, Orban..) zelai politikoa gaiztotzen dute: lehen irudikaezinak ziren jarrera, iritzi eta ekintza antidemokratikoak ernatzea dakar. Bestela esanda, lehenago larriak ziren ankerkeri eta basakeriak orain lasaitasunez praktikan jarri ahal izatea ekarri du, beti ere demokraziaren mozorroa erantzi gabe.

Europan eta bereziki Europako Batasunaren baitan, estatu frantses eta espainolean, ez dago ultraeskuineko muturrean kokatzen diren alderdiei erreparatu beharrik alarmak pizteko. Fronte Nazionala edota Vox alderdiekin tematu gaitezke, baina herrialde hauetan beste indar politiko batzuek areagotu dituzten jarrera autoritarioek alerta jo behar digute.

**Ultra eskuineko alderdi berri eta ez hain berrien gorakadak, ekarri du posizio zentralagoetan kokatu izan diren indar politikoen jarrera eta jokaldiek geroz eta kutsu autoritarioagoa izatea**

Bilduma honen hirugarren eta laugarren atalak horren inguruan antolatu ditugu. Ezinbestekoa baita Euskal Herrian eta bereziki Hegoaldean, kutsu autoritario duen politikagintza nola mamitzen den ulertaraztea. Tamalez, ez dugu ultraeskuineko alderdi berrien beharrik ere, politikagintza autoritarioak identifikatzeko.

Wu-Ming izeneko italiar idazleen taldeak, bereziki landu du Italiako kasua. Wu-Mingen arabera, faxismoa etengabe arazo eta soluzio faltsuak fabrikatzen dituen gailua da. Aurkari faltsuak identifikatzen ditu, errudun faltsuak seinalatzen dizkigu. Faxismoa indargune sozialen jabe egiten da, ezkerreko indar eraldatzaileak desjabetuz. Faxismoak eskaintzen dituen soluzio faltsuekin arazo errealak are gaitzago bihurtzen dira eta gainera, aliatuta egon beharko luketen indarrak urrundu eta banatu egiten ditu.

Hala, azken atalean faxismoaren aurkako borrokan aintzat hartu beharreko aliantza posibleak balioan jarri ditugu. Kapitalismoak, neoliberalismoak eta autoritarismoak are gehiago zapaltzen dituen haiexek identifikatu beharra dago: generoa, jatorria eta klasearen arteko intersekzioa, alegia. Feminismo eraldatzailearen potentzialak berebiziko pisua dauka azken atal honetan: olatu feministaren goraldiak bat egin du denboran oldarraldi autoritarioarekin, ez modu kasualean. Baina feminismoarekin batera, erresistentzia antolatzeko orduan aintzat hartu behar ditugu derrigor, klasea, jatorria, eta ingurumena.

Gurean ere, feminismoak, kontrabotereko sindikalgintzak, mugimendu ekologistak, xenofobiaren aurka borrokatzen duten mugimenduek elkarren eskutik joan beharra dugu bide honetan.

*Erresistentzian sinisten dut, itzalik gabe argirik ez dagoela sinisten dudan modu berean. Edo hobe esanda, ez dago itzalik, baldin eta argirik ere ez dagoen.*

*Margaret Atwood*

# 1 Faxismoaren askotariko soslaiak

## Una derecha sin complejos

**Yayo Herrero**
Ctxt 2019/01/30

**IPCCren azken informeak hamabi urte ematen dizkigu planetaren berotzeari loturiko hondamendiak leuntzeko**

El Club de Roma advertía en 1972 sobre la inviabilidad del crecimiento indefinido de la población y sus consumos en un planeta con límites físicos. Aunque esas proyecciones sobre la disponibilidad de recursos fueron denostadas, la información científica que disponemos hoy valida en buena medida lo que entonces se auguraba.

El IPCC advierte en su último informe que disponemos de doce años para mitigar el calentamiento global y limitar el alcance de la catástrofe global. De lo contrario, millones de personas estarán en peligro ante las crecientes sequías, inundaciones, incendios, hambrunas y pobreza.

La Agencia Internacional de la Energía en su último informe anual advierte que en 2025 será imposible satisfacer la demanda de petróleo. Igualmente señala problemas con el carbón, uranio y gas natural. También lo afirma Brufau, máximo responsable de Repsol, que habla de previsible escasez de petróleo en un par de años. Estos desajustes provocarán una fortísima inestabilidad en los precios del petróleo.

El declive de la energía fósil y la crisis climática obligan a una transición del sector energético y del transporte hacia energías renovables. Ello implicará depender de otros minerales que también son finitos. La electrificación de los vehículos estará probablemente limitada por el uso de cobalto, litio y níquel; podría haber restricciones para las aleaciones de acero que necesitan cromo, molibdeno o vanadio y en equipos electrónicos que requieren plata, cobre o tántalo. La energía solar fotovoltaica demandará materiales tales como indio, selenio, estaño o teluro y la energía eólica está asociada a imanes permanentes que requieren neodimio y disprosio. La extracción de los minerales nombrados se encuentra en situación de riesgo alto, cuando no ha sobrepasado ya sus picos.

Todos estos factores inciden en la economía y las personas. Tras la crisis de 2007 y sin habernos recuperado, estamos en puertas de una nueva recesión económica. Los síntomas están ahí para quien quiera verlos. General Motors anuncia el cierre de cinco plantas en Norteamérica, Arcelor anuncia un ERTE para 2019, Vodafone anuncia un ERE en España, Alcoa pretende cerrar las secciones con más consumo energético, el sector financiero afronta dos grandes ERE, etc. Seguirán las refinerías, empresas de automoción y otras, no porque se apliquen políticas ecológicas como se dice a veces, sino porque los capitales abandonan sectores que no dan los beneficios que esperan y, con ellos desechan a las personas trabajadoras.

A su vez, las condiciones materiales de vida empeoran. La vulnerabilidad económica afecta al 32,6% de la población española. Casi un 30% de las familias emplean ahorros o piden dinero prestado para hacer frente a sus gastos. Se extreman las formas de explotación y, los empleos mal pagados y precarios se convierten en una nueva normalidad.

Wallerstein plantea que las crisis cíclicas del capitalismo se producirán cada vez más seguidas al topar con los límites del planeta. Tiene razón. La economía, no nos cansamos de repetir, es un subsistema del medio natural en el que se inserta, no al revés. Tanto por el lado de la extracción como de los residuos, nuestro planeta se encuentra en una situación de translimitación. Eso significa que el decrecimiento de la esfera material de la economía es simplemente un dato. El crecimiento económico actual está directamente acoplado al uso de materias primas y, ante su declive, se estanca y retrocede inevitablemente.

**Kapitalismoak areagotu egin ditu bizitzarako oinarrien desjabetze mekanismoak: bizi-komunitateak eta lurraldeak txikitu, babes publiko eta komunitario sareak desegin eta antolatzen diren erresistentziak kriminalizatu eta erreprimitzen ditu.**

Hoy, la humanidad necesita un planeta y medio para vivir. La huella ecológica mide la superficie ecológicamente productiva necesaria para producir los recursos consumidos por una persona media de una determinada comunidad humana, así como para absorber los residuos que genera. Esa superficie se dispara en lugares como Estados Unidos o Europa. Es decir, los países enriquecidos no viven con los recursos de sus propios territorios, sino con las materias primas y productos manufacturados con cargo a otros lugares. En España, el 80% de la energía y 75% de los minerales utilizados proceden fundamentalmente de América Latina y África, y los alimentos que consumimos requieren el doble del territorio nacional.

En su obra Mein Kampf, Hitler declaró que los alemanes merecían "espacio vital" acorde con la dignidad de la raza aria y defendió la legitimidad moral de ocupar los territorios de otros pueblos inferiores y eliminar a quienes vivían en ellos. Si cambiamos espacio vital por huella ecológica iluminamos dimensiones ocultas que explican la emergencia de movimientos de extrema derecha.

El capitalismo mundializado en este planeta translimitado ha intensificado los mecanismos de apropiación de tierra, agua, energía, animales, minerales y explotación de trabajo humano. Instrumentos financieros, deuda, compañías aseguradoras, y todo un conjunto de leyes, tratados internacionales y acuerdos constituyen una verdadera arquitectura de la impunidad que allana el camino para que complejos entramados económicos transnacionales, apoyados en gobiernos a diferentes escalas, despojen a los pueblos, destruyan territorios, desmantelen las redes de protección pública y comunitaria que existan, y criminalicen y repriman las resistencias que surjan.

Este es el fascismo territorial que, dice Boaventura Souza Santos, establece fronteras internas y externas que separan a quienes

están dentro de quienes son población sobrante. Un fascismo que se esconde detrás de una democracia vaciada.

Esta construcción política es asumida como ley natural y cuenta con amplio consenso, no solo de las derechas sino también de la socialdemocracia. Las tensiones sociales que se crean pueden hacer saltar las costuras del modelo. Los chalecos amarillos, las movilizaciones en Polonia, el movimiento feminista, el de pensionistas, las propias personas migrantes organizadas en caravanas y/o grupos de asalto a las vallas, son manifestaciones de ese malestar.

En medio de estas turbulencias se produce un repunte significativo de opciones políticas de ultraderecha. Trump, Bolsonaro o Abascal enarbolan un discurso xenófobo, misógino, histriónico y agresivo que evoca un pasado glorioso que nunca existió. Buscan desviar la mirada del proceso de desposesión y expulsión que estamos viviendo. Solo en un clima de tensión, violencia e histeria es posible esconder dicho proceso.

La economía globalizada asienta el fascismo territorial a partir de la ingeniería social y la racionalidad económica que considera que las vidas y los territorios importan solo en función del "valor añadido" que produzcan. La extrema derecha es el cómplice necesario que criminaliza, estigmatiza, deshumaniza y legitima el abandono y expulsión de las personas "sobrantes". La ultraderecha pretende mantener el orden del fascismo territorial mediante el miedo, la desconfianza y el ejercicio del poder contra el último.

El feminismo está en el centro de su diana, creo que por tres motivos. Uno, por ser un movimiento organizado, de masas y transversal que ha lanzado un órdago al sistema en su conjunto y que reclama revertir las prioridades económicas y políticas poniendo las personas en el centro; dos, porque en un marco de recortes y destrucción de servicios públicos, se pretende que las mujeres garanticen la reproducción cotidiana de la vida; y tres, porque es fácil generar rechazo contra un movimiento que cuestiona los privilegios de la mitad de la población y que pone patas arriba la ética reaccionaria familiarista que lleva milenios asentada.

La extrema derecha exacerba la virilidad más añeja y cobarde. Una virilidad sumisa al poder, fuerte con los débiles, que quiere "poner a las mujeres en su sitio", se crece cuando trata con brutalidad a los animales o cuando humilla y criminaliza a personas extranjeras o a quienes piensan distinto… sin complejos. Todo vale excepto señalar las lógicas económicas y los agentes que provocan la crisis y levantan vallas para proteger los privilegios de los ricos. Ocultan el despojo material y canalizan la rabia y el miedo a través del linchamiento social de colectivos declarados como monstruosos.

¿Cómo hacer para garantizar las condiciones de vida para todas las personas? ¿Cómo afrontar la reducción del tamaño material de la economía de la forma menos dolorosa? ¿Qué modelo de producción y consumo es viable para no expulsar masivamente seres vivos? ¿Cómo mantener vínculos de solidaridad y apoyo mutuo que frenen las guerras entre pobres, vacunen de la xenofobia y del repliegue patriarcal?

Señalar las causas estructurales y a quienes están detrás de este proceso de acumulación por desposesión es condición necesaria para crear las condiciones políticas que permitan recomponer un metabolismo social en el que la vida digna sea posible.



# Eraldaketa handia

**Karl Polanyi**
1944

**Kapitalismo liberalak merkatu ekonomia erreformatzeko agerturiko ezinaren eraginez sortutako kale itsutik irteteko bidea izan zen faxismoa, sistema ekonomikoa indaberritzeko erakunde demokratiko guztiak ezabatuz**

Faxismoak ihesbide bat proposatzen zuen irteerarik gabeko egoera instituzional batetik ateratzeko. Berez, egoera berbera zen herrialde askotan eta askotan, eta, beraz, erremedio hori aplikatzen saiatzea munduaren luze-zabalean gaixotasun hilgarri bat hedatzearen parekoa zen. Halaxe hil izan dira zibilizazioak.

Soluzio faxista deskribatzeko hainbat ahalegin izan dira. Zenbaitek, kapitalismo liberalak merkatu-ekonomia erreformatzeko jasan zuen geldialdi gisa deskribatu izan du. Erreforma hura gauzatzeko, ordaina garestia izan zen, harreman industrialen eremuan nahiz eremu politikoan erakunde demokratiko guztiak erauzi baitziren. Hala, hausteko zorian zen sistema politikoak indarrak berreskuratu behar zituen, eta, bien bitartean, bestelako heziketa baten mende bizitzen ikasi behar zuten herritarrek; hain zuzen, gizabanakoa desnaturalizatzea eta gorputz politikoaren kide arduratsu gisa funtzionatzeko gaitasunik gabeko izaki bihurtzea zuen helburu heziketa berri horrek. Heziketa horrek erlijio politiko baten dogmak barne-biltzen zituen, eta giza anaitasunaren ideia baztertzen zuen edozein zela ere anaitasun horren adierazpidea. Hala, herritar masak bihurtzeko ekimen baten bidez gauzatu zen heziketa hori, eta aurka agertu ziren setatiei tortura-metodo zientifikoen bidez ezarri zitzaien.

Tamaina horretako mugimenduak sortzea munduko herrialde industrialetan, baita gutxi industrializatutako zenbait herrialdetan ere, ez zen tokiko arrazoien, mentalitate nazionalen edo tokiko istorioen ondorio izan, nahiz eta garaikide askok setakeriaz hala uste izan. Faxismoak ez zuen batere zerikusirik Gerra Handiarekin, hala nola Versaillesko Itunarekin, junker militarismoarekin edota italiar izaerarekin bezain gutxi. Mugimendua han eta hemen agertu zen: garaile atera ziren herrialdetan, Jugoslavian adibidez; iparraldeko izaera zuten herrialdeetan, Finlandian eta Norvegian esaterako; baita hegoaldeko izaera zuten herrialdeetan ere, Italian eta Espainian, besteak beste. Gauza bera ariar arrazako herrialdeetan, Ingalaterra, Irlanda eta Belgikan adibidez, edo ariar arrazakoak ez diren herrialdeetan, hala nola Japonia, Hungaria eta Palestinan; tradizio katolikoko herrialdeetan, Portugalen esaterako, eta herrialde protestanteetan (Holanda), jite militarreko komunitateetan (Prusia) eta jite zibilekoetan (Austria), Kultura zaharretan (Frantzia) eta kultura berrietan (Amerikako Estatu Batuak), eta Latinoamerikako herrialdeetan. Egia esan, han eta hemen faxismoa agertzeko

baldintzak batu zirenean, munduan herrialde bakar batean ere ez zen izan faxismoaren bulkada horri aurre egiteko adinako blindajerik, edozein izanik ere herrialde horren tradizio erlijiosoa, kulturala edo nazionala.

Oso garrantzitsua da ohartzea zeinen lotura eskasa dagoen mugimendu horien indar

## Faxismoaren agerkunde eta zabalkundea ezin daiteke tokiko egoera, herrialde jakinetako pentsakera edo historia jakinei lotu

material eta numerikoaren eta eraginkortasun politikoaren artean. "Mugimendu" hitza bera ere engainagarria da; izan ere, jendeak talde jakin batekin bat egiten duela edo masan parte hartzen duela adierazten du. Eta, hain zuzen, faxismoak hori du bereizgarrietako bat: ez duela herritarren horrelako manifestazio edo agerpenen beharrik. Oro har, faxismoaren helburua bazen jarraitzaile masak biltzea, baina haren indar potentzialaren adierazlea ez zen jarraitzaile kopurua, ezpada goi-mailako pertsonen eragina, eta horretan bai asmatu zutela buruzagi faxistek, goi-mailako pertsona horien babesa lortzen: hala, balizko kolpe batek hutseginez gero, haien laguntza izan zezaketen ondorioen aurka babesteko, eta iraultza baten arriskuak indargabetzeko.

Herrialde bat aro faxista batera hurbildu ahala, zenbait sintoma agertzen ziren, eta horien artean ez zegoen, halabeharrez, mugimendu berez faxista bat sortzea. Hauek ziren sintoma nagusi horietako batzuk: filosofia irrazionalisten hedapena, txanponari buruzko iritzi heterodoxoak, alderdi-sistemaren aurkako kritikak eta "erregimena" gaitzesteko doilorkeriak, edozein izanik ere erregimen horren forma demokratikoa. Faxismoaren akuilu, eragile eta bultzatzaile izan ziren, besteak beste, Othmar Spannen filosofia unibertsalista zeritzona, Austrian, Stephan Georgeren poesia eta Ludwig Klagesen erromantizismo kosmogonikoa Alemanian, D. H. Lawrenceren bitalismo erotikoa Ingalaterran, eta Georges Sorelen mito politikoaren gurtza, Frantzian. Hitler, azkenik, Hindenburg presidentea inguratzen zuen presio-talde feudalak hauspotuta iritsi zen boterera, eta, modu berean, Mussolini eta Primo de Rivera ere beren subiranoen eskutik igo ziren agintera. Hitlerrek, ordea, mugimendu zabal baten babesa zuen; Mussolinik mugimendu txiki batena, eta, Primo de Riverak, aldiz, ez zuen inolako mugimenduren babesik. Alabaina, inon ez zen gertatu egiazko iraultzarik eratutako aginpidearen aurka; taktika faxista zen iraultza baten simulakroa egitea, agintarien isilbidezko akordio bidez antolatua, indarrez gaindituak izan zirelako itxurak eginda. Horiexek dira egitura konplexu baten zedarri nagusiak, eta hor dute leku bat askotariko pertsonaiek, besteak beste, Detroit hiri industrialeko frankotiratzaile demagogo katolikoak, Louisiana atzeratuko "Kingfishak", armada japoniarreko konspiratzaileek eta sobietarren aurkako sabotatzaileek.

Faxismoa beti prest zegoen aukera politikoa zen, ia berehalako erreakzio sentimentala, 1930eko hamarkadako komunitate industrial guztietan. Faxismoa bulkadatzat edo maniobratzat har daiteke, mugimendutzat baino gehiago; termino zehatzagoa da krisiaren izaera inpertsonala adierazteko, krisi horren sintomak, askotan, lausoak eta anbiguoak baitziren.

Askotan, ez zegoen jakiterik diskurtso politiko bat, antzezlan bat, sermoi bat, desfile bat, metafisika bat, korronte artistiko bat, poema bat edo alderdi baten programa faxistak ziren ala ez. Ez zegoen irizpide orokor bat faxismoa definitzeko, ez eta faxismoak bere baitan dotrina bat ote zuen erabakitzeko ere, terminoaren ohiko zentzuan. Alabaina, faxismoaren adierazpide antolatu guztiek bereizgarri nabarmenak zituzten: goizetik gauera agertzen eta desagertzen ziren, eta modu bortitzean lehertzen ziren, denboraldi mugagabean latente egon ondoren. Hori guztia bat dator faxismoari buruz dugun irudiarekin: indar sozial bat zeinaren hazkunde eta gainbehera faseak egoera objektibo bati dagozkion.

Labur esateko, guk "egoera faxista" izendatu duguna garaipen faxista erraz eta erabatekoak lortzeko abagune tipikoa besterik ez zen. Bat-batean, langileen erakunde sindikal eta politiko bikainak eta beren burua askatasun konstituzionalaren aldeko jotzen zuten beste eragile batzuen antolakundeak sakabanatu egin ziren, eta talde faxista txikiek suntsitu egin zuten ordura arte gobernu, alderdi eta sindikatu demokratikoen indar menderaezina zirudiena. "Egoera iraultzaile" baten bereizgarria

## Faxismoa, sozialismoa lez, funtzionatzen ez zuen merkatu ekonomiak elikatzen zuen eta bere eragina, ekonomiaz harago, bizitzaren eremu guztietara islatzen zen

baldin bada erresistentzia-indar guztien suntsitze psikologiko eta morala, hainbesteraino ezen gaizki armatutako matxino taldetxo bat gai baita indarrez hartzeko erreakzioak menderatutako gotorlekuak, orduan "egoera faxista" bat oso

antzekoa da. Aldea da, ordea, kasu honetan, askatasun konstituzionalen demokraziaren gotorlekuak direla garaituak, eta deigarria da gotorleku horien defentsen eskasia.

Prusian, 1932ko uztailean, legezko gobernu sozialdemokratak, botere legitimoaren babesa izan arren, amore eman zuen Herr von Papenek gidatutako indarkeria instituzionalaren mehatxu soilaren aurrean. Doi-doi sei hilabete geroago, Hitlerrek modu baketsuan bereganatu zituen boterearen maila gorenak, eta posizio horietatik Weimarren errepublikako erakundeak eta alderdi konstituzionalak erabat suntsitzeko eraso iraultzailea abiarazi zuen. Itsu gaude pentsatzen badugu mugimenduaren indarrak sortzen dituela halako egoerak, alderantziz baita: kasu honetan, egoerak eragin zuen mugimendua. Beraz, horrela pentsatuz gero, azken hamarkadetan izan diren gertakarien irakasgai nagusia albo batera utziko genuke.

Faxismoak, sozialismoak bezala, merkatu-gizarte batean zituen sustraiak, aurrera egin nahi ez zuen gizarte batean. Horrenbestez, planeta osoa hartzen zuen, mundu mailako eragina zuen eta ondorioak ere halakoxeak ziren, ekonomiaren esfera gainditu eta izaera erabat sozialeko eraldaketa handi bat sortzeraino. Faxismoak giza jardueraren esparru ia guztiak hartu zituen: politika eta ekonomia, kultura eta filosofia, artea eta erlijioa... Eta, hein batean, tokian tokiko eta jarduera-esparru horietako joerekin bat egin zuen. Faxismoaren ekinbideak, beraz, herrialde bateko eta besteko joera iragankorrekin fusionatu ziren. Aldi horretako historia ulertuko bada, beraz, garrantzitsua da bereiztea, alde batetik, faxismoaren oinarrian zegoen bulkada faxista, eta bestetik, aipatutako joera iragankor horiek.

1920ko Europan, joera haien artean bi hauek ziren nagusi: kontra-iraultza eta errebisionismo nazionalista; hain zuzen, faxismoaren hezurduran ez ziren hain garbi islatzen bi joera horiek, baina oso hedaturik zeuden. Joera horiek gerraondoko itun eta iraultzetan oinarriturik zeuden, zorrotz zehaztuta zeuden, eta haien helburu zehatzetara mugatzen ziren, baina, orobat, oso erraz nahas zitezkeen faxismoarekin.

Pendulu politikoa aurrez modu bortitzean iraulitako egoera batera itzularazteko ohiko bidea ziren kontrairaultzak. Desplazamendu horiek ohikoak izan ziren Europan Commonwealth of England (1649-1660) mankomunitateaz geroztik gutxienez, eta haien eta garaiko prozesu sozialen arteko loturak mugatuak baino ez ziren.



# Novecento...

- Jamás he hecho daño a nadie.
- Eso es lo que dicen todos los patronos. (...) Los fascistas, no son como los hongos, que nacen así en una noche, no. Han sido los patronos quienes han plantado los fascistas, los han querido, les han pagado. Y con los fascistas lo patronos han ganado cada vez más hasta no saber dónde meter el dinero. Y así inventaron la guerra. Y nos mandaron a África, a Rusia, a Grecia, a Albania, a España... Pero siempre pagamos nosotros. ¿Quién paga? El proletariado, el campesino, ¡los pobres!

# Hannah Arendt en su centenario

**José María Pérez Gay**
La Jornada 2006



**El hombre de la jaula, que escuchaba la traducción del hebreo al alemán, no era el criminal demoniaco ni la encarnación del Mal absoluto, sino un hombre ridículo en su excesiva mediocridad**

[…] Cuando en 1939 los nazis deciden la deportación masiva de los judíos alemanes a los guetos dispuestos en Polonia y, sobre todo, cuando en 1942 se celebra la Conferencia de Wannsee, organizada por Reinhard Heydrich, en la que se lanza la llamada solución final, Adolf Eichmann participa como secretario general: queda encargado de la logística de las deportaciones hacia los campos de exterminio. Eichmann era el artífice de los judenräte o consejos judíos -que colaboraban en las deportaciones facilitando la identificación de los habitantes de los guetos, confeccionando la lista de personas a deportar, inventariando sus bienes […]

Cuando escribió Los orígenes del totalitarismo, Hannah Arendt no tenía una experiencia directa del sistema totalitario. La oportunidad se la brindó el proceso de Eichmann en Jerusalén. La revista The New Yorker la envió como reportera al juicio de Eichmann. Mientras revisaba todas las declaraciones del acusado y de los principales actores de la justicia y la política israelíes, leyó todos los documentos accesibles. Kurt Blumenfeld, su antiguo amigo de Berlín, le tradujo los comentarios de la prensa israelí.

La primera impresión que Arendt tiene de Eichmann en la sala del juicio, cuando se encontraba detrás de una jaula de cristal blindado, no fue la que ella misma esperaba ni, mucho menos, la que la fiscalía israelí quería imponer como única y verdadera. El hombre de la jaula, que escuchaba la traducción del hebreo al alemán, no era el criminal demoniaco ni la encarnación del Mal absoluto, sino un hombre ridículo en su excesiva mediocridad, un pobre diablo. Una paradoja que nadie

aceptaría en esa época, ni la fiscalía israelí ni, mucho menos, los lectores judíos de su obra Eichmann en Jerusalén: la banalidad del Mal.

Si empleamos la terminología de David Riesman, que en esos años dominaba la sicología social, Eichmann no era un individuo atormentado por su conciencia moral (inner-directed), sino alguien dirigido por impulsos exteriores (other-directed). Más todavía: la justificación de su trabajo radicaba en la imprescindible necesidad de cumplir las órdenes que se le daban, cuya legitimidad nunca puso en duda. La obediencia era su principio fundamental. Durante el proceso, Eichmann manifestó varias veces que si Hitler había sido capaz de ascender de simple cabo del ejército alemán durante la Primera Guerra Mundial y convertirse en el führer de una nación de casi 80 millones de habitantes, "su triunfo me demostraba -dijo Eichmann- que yo me debía someter a él y guardarle total obediencia".

Sin duda, Eichmann deseaba hacer una carrera, uno más de los oportunistas de las SS, el camino para ascender en la escala del terror era cumplir con las órdenes de Heydrich o Himmler. Lo que nadie puede responder con seguridad, escribe Arendt, es si Eichmann habría sido capaz de distinguir entre el bien y el mal, si tenía una conciencia moral (gewissen) que pudiera decirle que el proyecto nacionalsocialista de exterminio de los judíos, que el régimen totalitario le exigía, era una barbaridad inhumana. Eichmann manifestaba una y otra vez: "Desde mi infancia nunca odié a los judíos, la educación que recibí de mi madre y padre fue estrictamente cristiana, y mi madre tenía una idea muy distinta de las cosas, distinta a la que tenían los círculos cercanos de las SS, porque ella tenía parientes judíos..." Eichmann es, sin duda, un imbécil moral. [...]

Hannah Arendt, cuya obra Eichmann en Jerusalén, levantaría una encendida polémica en todos los círculos judíos, nos dice que la lección que podemos aprender en Jerusalén consiste en que la imbecilidad y el sometimiento a las burocracias totalitarias puede causar una catástrofe más grave que un exterminio planeado por seres demoniacos. Eichmann es sólo el que recibe las órdenes y las cumple con una lealtad y limpieza excepcionales, superiores a cualquier pulsión de muerte que habite en los seres humanos.

## La imbecilidad y el sometimiento a las burocracias totalitarias puede causar una catástrofe más grave que un exterminio planeado por seres demoniacos

El régimen totalitario de Hitler sigue poniendo en duda cualquier forma de fe en el futuro de los hombres. Hitler consumó lo que Kafka presentaba en El proceso como un mundo aterrador: "Que la mentira se convierte en el orden del mundo". Los fines supremos que el nacionalsocialismo se propuso -el exterminio de los judíos, de los pueblos de Europa central y el mantenimiento de la raza aria- son bárbaros en sí mismos y, medidos con los valores fundamentales de la civilización occidental, son un puñado de mentiras. Si, como quiere Peter Sloterdijk, el Gran Inquisidor de Dostoyesvski, por un acto casi divino hace que el fin santifique los medios. El "cinismo de los medios" sirve al "moralismo de los fines". El Gran Inquisidor quiere "lo mejor para el hombre". Está dispuesto a quemar a Cristo, que ha regresado, porque sabe que el hombre está sobrecargado con la libertad del cristiano y el precepto del amor.

El Gran Inquisidor sabe que nada temen los hombres tanto como su libertad. La imbecilidad moral de Eichmann nos muestra, como ha demostrado Hannah Arendt, que cualquier burócrata, cualquier mediocre es capaz de exterminar a millones de personas. Los metafísicos totalitarios sólo pueden sentirse plenos si destruyen en los otros lo que pueda recordarles una ausencia, lo que siempre les faltará: su vida nunca podrá ser, dice Sloterdijk, algo justo. "Una de las más complejas cualidades de los hombres -dice el filósofo de Karlsruhe- es aceptar el carácter sagrado de la vida y hacer de ella una virtud. Franz Kafka es un ejemplo. En vísperas de la hecatombe totalitaria en Europa, anotó en su Diario en torno al sentido de sus textos: "Safarse de la cadena de asesinatos, no enriquecerse con el dinero del espíritu de los otros, observar los hechos y escribirlos".

En su centenario, Hannah Arendt nos recuerda que la política es la negociación del restablecimiento de la paz en el campo de batalla de las verdades, un restablecimiento que no puede ser orientado por ninguna verdad trascendente salvo aquella que garantice la condición de una vida digna para el hombre. Su contribución capital será la vigilancia del respeto a las reglas del juego que permita a cada uno de nosotros descubrir o, incluso, inventar su verdad vital. La verdad elemental de la política, nos recuerda Hannah Arendt, debe consistir precisamente en esas reglas; su mayor enemigo es la hipocresía.

# 2 XXI mendeko autoritarismoak faxismo ote?

## Demokraziak hil ere demokratikoki hiltzen dira

**Boaventura de Sousa Santos**
Rebelión 2018/10/29

**Los peligros que la democracia corre hoy provienen, paradójicamente, del normal funcionamiento de las instituciones democráticas**

Pentsatu ohi dugu erregimen politikoak bi mota nagusitan banatzen direla: demokraziak eta diktadurak. 1989an Berlingo Harresia erori ondoren, demokrazia (liberala) erregimen politiko legitimo ia bakartzat hartu zen, ia adostasun osoz. Nahiz eta bakoitzaren barne dibertsitatea handia izan, bi mota antagoniko dira, ezin dira batera bizi gizarte berean, eta baten edo bestearen aldeko hautuak borroka politikoa dakar beti, eta borroka horrek indarrean den legezkotasuna haustea dakar.

Aurreko mendean zehar, ideia hau gorpuztuz joan zen ezarian-ezarian: demokraziak hausteko bidea legezkotasun konstituzionala modu bortitzean eta ia beti indarkeriaz etetea zela, militarrek edo zibilek zuzendutako estatu-kolpeen bidez, eta diktadura bat ezartzeko helburuz. Narrazio hori, hein handi batean, egiazkoa zen. Baina jada ez da. Gerta daitezke haustura bortitzak eta estatu-kolpeak, baina gero eta nabarmenagoa da demokraziaren gaur egungo arriskuak beste batzuk direla, eta, paradoxa bada ere, erakunde demokratikoen funtzionamendu normala dela arrisku horien sorburua.

Indar politiko antidemokratikoak infiltratzen doaz erregimen demokratikoaren barnean, eta azpilanean hasten dira hura bahitzen, pixkanaka haren izaera indargabetzen aritzen dira, isilago edo nabarmenago, betiere legalitatearen barnean eta asaldura konstituzionalik sortu gabe,

harik eta une jakin batean, formalki demokrazia izateari utzi gabe, indarrean den erregimen politikoa eduki demokratikoz erabat hustuta geratzen den arte, bai pertsonen bai erakunde politikoen bizitzari dagokionean. Batzuk eta besteak diktadura batean biziko balira bezala jokatzen hasten dira. Prozesu honen lau osagai nagusiak aletuko ditut jarraian.

### AUTOKRATA HAUTATZEA

AEBetatik Filipinetara, Turkiatik Errusiara, Hungariatik Poloniara, politikari autoritarioak hautatu izan dira demokratikoki, eta, establisment politikotik eta ekonomikotik sortuak badira ere, antisistema eta antipolitika moduan aurkezten dute beren burua, aurkariak iraintzen eta usteltzat jotzen dituzte eta deuseztatu beharreko etsaitzat hartzen dituzte, uko egiten diete joko-arau demokratikoei, arazo sozialak indarkeria bidez konpontzeko deialdi mehatxukorrak egiten dituzte, mespretxatu egiten dute prentsa-askatasuna, eta langileen eta etnia, arraza, sexu edo erlijio arrazoien ondorioz bazterketa jasaten duten herritarren eskubideak bermatzen dituzten legeak indargabetzea proposatzen dute. Azken batean, demokraziaren aurkako ideologiarekin aurkezten dira hauteskundeetara, eta, hala ere, botoen gehiengoa eskuratzen dute. Beti izan dira politikari autokratikoak. Aurrez inoiz ez bezala, ordea, oso maiz iristen ari dira agintera.

### BIRUS PLUTOKRATA

Diruak hauteskunde-prozesuak eta erabaki demokratikoak zer-nola desitxuratu dituen ikustea oso-oso kezkagarria da, hainbesteraino, ezen auzitan jarri behar baita, egoera askotan, hauteskundeak benetan libreak eta garbiak ote diren eta erabaki politikoak hartzen dituztenek beren uste sendoei jarraituz hartzen ote dituzten, ala patrikaratzen duten diruagatik egiten duten. Demokrazia liberalaren oinarrian dagoen ideietako baten arabera, herritarrek aukera dute iritzi publiko informatua eskuratzeko, eta, horretan oinarrituta, beren

**En cierto momento el régimen político vigente, sin haber dejado de ser formalmente una democracia, surge como totalmente vaciado de contenido democrático**

agintariak askatasunez aukeratzeko eta haien jarduna ebaluatzeko. Hori benetan horrela izango bada, premiazkoa da ideia politikoen merkatua (hau da, uste sendoak diren heinean, preziorik ez duten balioen merkatua) eta ondasun ekonomikoena (hau da, prezioa duten eta, ondorioz, salerosi egiten diren balioena) erabat bereiztea.

Azken garaiotan, bi merkatu hauek nahastuz joan dira merkatu ekonomikoaren gerizpean, hainbeste nahastu ere, gaur egun politikan dena erosi eta dena saltzen baita. Ustelkeria endemikoa egin zen. Alderdi edo hautagaien hauteskunde-kanpainak finantzatzea ohikoa da, eta parlamentu eta gobernuei loturiko presio-taldeek (edo lobbiek) botere izugarria dute gaur egun herrialde askotako bizitza politikoan. 2010ean, AEBetako Gorte Gorenak kolpe hilgarria eragin zion Ipar Amerikako demokraziari Citizens United vs Federal Election Commission kasuan, baimena eman baitzien enpresa eta aberats handiei hauteskundeak eta erabaki politikoak mugarik gabe eta modu pribatuan finantzatzeko. Horrela eman zitzaion bide “Dark Money” deritzonari; hau da, ustelkeria legeztatuari. “Dark money” horrek berak eragin du Brasilgo kongresuaren osaera gaur egungoa izatea, eta balaren, Bibliaren eta idiaren sokakoak izatea nagusi. Horra hor Brasilgo gizartearen karikatura krudela.

### FAKE NEWS-AK ETA ALGORITMOAK

Internet eta Internetek ahalbidetu zituen gizarte-sareak demokrazian herritarren parte-hartzea aurrekaririk gabe hedatzea errazten zuten tresnatzat hartu izan ziren denboraldi batean. Gaur, Estatu Batuetan eta Brasilen zer gertatzen ari den ikusita, esan dezakegu baliabide horiek, arautzen ez badira, demokraziaren hobiratzaile bihurtuko direla. Batez ere bi tresnari buruz ari naiz. Albiste faltsuak beti izan dira gizarte oso zatituetan, batez ere aurkakotasun politikoa indarrean izan den aldietan. Gaur egun, ordea, oso kezkagarria da albiste horiek zer-nolako suntsipen-ahalmena duten, zabaltzen duten desinformazioaren eta gezurraren bidez. Fenomeno hori bereziki larria da Indian, Brasilen eta beste zenbait herrialdetan; izan ere, gizarte-sareak eta batez ere Whatsapp (enkriptatua denez, hauxe da gutxien kontrola daitekeen edukia) izugarri erabiltzen dira, herritarren informazio iturri nagusia -edo ia bakarra- bihurtzeraino (Brasilen, 120 milioi herritarrek erabiltzen dute Whatsapp). Brasilgo ikerketa-taldeek New York Times egunkarian salatu zuten (urriaren 17a) Whatsappen Bolsonaro babesteko 347 talde publikoetan gehien hedatutako 50 irudietatik (biralak) 4 baino ez zirela benetakoak. Haietako argazki bat Dilma Rousseff Senaturako hautagaiarena zen, Fidel Castrorekin Kubako Iraultzan. Berez, John Dupreyren erregistroan oinarrituta NY Daily News egunkarirako 1959an eginiko muntaia zen. Urte hartan, Dilma Rousseff 11 urteko neskatila zen. Nazioarteko enpresa handiek

eta kontrainteligentzia-zerbitzu militar nazional eta atzerritarrek babestuta, Bolsonaroren kanpaina gezurren muntaia beldurgarri bat izan zen, eta Brasilgo demokraziak nekez iraungo du bizirik orube horren gainean.

Eragin suntsitzaile hori beste tresna batek areagotzen du: algoritmoak. Arabiar jatorriko termino horrek datu eta aldagai sail handietan (big data) oinarrituta egiten den kalkulu matematikoa adierazten du; kalkulu horrek aukera ematen du lehentasunak definitzeko eta erabaki azkarrak hartzeko, emaitza jakin batzuk lortze aldera (enpresa batean edo hauteskunde batzuetan arrakasta izatea). Itxura batean neutroa eta objektiboa bada ere, algoritmoak iritzi subjektiboak barne-biltzen ditu (Zer da arrakasta izatea? Nola zehazten da hautagai onena?), kalkuluetan ezkutuan geratzen diren iritziak. Enpresei eskatzen zaienean irizpideak agertzeko, enpresa-sekretuaren printzipioarekin babesten dute beren burua. Esparru politikoan, algoritmoak aukera ematen du sareetan bogan dagoen gai bat berrelikatzeko eta gehiago zabaltzeko; izan ere, herritarren artean puri-purian egote hutsagatik, algoritmoak garrantzitsutzat hartzen du gai hori. Bogan dagoena, ordea, robot-sareek eta profil automatizatuek gauzatutako manipulazio informatibo erraldoi baten emaitza izan daiteke; izan ere, sare horiek albiste faltsuak eta hautagai baten aldeko edo kontrako iruzkinak zabaltzen dizkiete milioika pertsonari, modu artifizialean gaia izugarri hedatuz, eta, hala, algoritmoaren bidez are ospe handiagoa lortuz.

Algoritmoak ez du ahalmenik bereizteko zer den egia eta zer gezurra, eta eragina are suntsigarriagoa da herritarrek ere gezurra bereizteko gaitasunik ez duten heinean. Horrela, berriki, 17 herrialdetan manipulatu dira hauteskundeetako lehentasunak, besteak beste Estatu Batuetan (Trumpen alde) eta orain Brasilen (Bolsonaroren alde), demokraziarentzat erabateko galbidea izan daitekeen neurrian. Bizirik iraungo al du iritzi publikoak maltzurkeria eta toxikotasun informatibo horren aurrean? Izango al du benetako informazioak albiste faltsuen uholde horretan eusteko aukerarik?

Beti esan izan dut uholde egoeretan, premiazkoena ur edangarria izaten dela. Cathy O'Neil konputazioko zientzialariak, esaterako, kezka izugarriz ikusten du gure iritzi, zaletasun eta erabakien gain egiten den manipulazio informatikoa, eta big data direlakoak eta algoritmoak suntsipen matematikoko armatzat hartzen ditu (Weapons of Math Destruction, 2016).

**ERAKUNDEAK BEREGANATZEA**

Jardun autoritarioen eta antidemokratikoen eragina erakundeetan, pixkanaka gertatzen da. Iruzur mota berrien bidez (2.0 iruzurra) hautatutako presidenteek eta parlamentuek (aipatu berri ditudan horiek), bidea parez pare zabalik dute erakunde demokratikoak beren erara maneiatzeko, eta, ustez legezkotasunaren barnean egin dezakete, nahiz eta legearen edo Konstituzioaren aurkako erasoak eta interpretazio makurrak guztiz agerikoak izan. Azken urteotan, Brasil legezkotasunaren manipulazio autoritariorako laborategi izugarria bihurtu da. Operazio horren bidez edo horri esker irisi zen bigarren txandara Bolsonaro neo-faxista, eta gero, baita hautatua izatera ere. Beste herrialde batzuetan gertatu izan den moduan, sistema judiziala izan zen bereganatutako lehen erakundea. Bi arrazoirengatik: botere politikoa izanik hauteskunde-politikatik urrunen dagoen erakunde delako, eta konstituzioaren arabera "epaile neutro" gisa sortutako organo burujabea delako. Hurrengo batean aztertuko dut bereganatze-prozesu hori. Zer izango da Brasilgo demokrazia bereganatze hori gauzatzen bada, eta horrek atzetik beste batzuk ahalbidetzen baditu? Demokrazia izango al da oraindik?



# Decir “fascismo” confunde y despolitiza

**Raúl Zibechi**
La Jornada, 10 de noviembre de 2018

**Zer dira periferia urbanoetako aldiriak, urik gabe baina gizon armatuez beteta, kontzentrazio esparruak ez badira?**

La extrema derecha actual es hija del extractivismo/cuarta guerra mundial, mientras el fascismo fue parido por el capitalismo monopolista en competencia por los mercados mundiales, por el colonialismo e imperialismo en su deriva racista, como señaló Hannah Arendt en Los orígenes del totalitarismo.

Comprendo que en los debates apasionados contra esa derecha machista y racista que crece exponencialmente, hablemos de “fascistas” o “fachos” y utilicemos adjetivos similares. Muchos lo hacemos como forma de fustigarlos. Sin embargo, el análisis sereno que expide el pensamiento crítico debería ir más al fondo de la cuestión.

Una porción importante de tales analistas desgajan el crecimiento de esta ultraderecha de la realidad económica, social y cultural que vivimos, y atribuyen este proceso a la influencia de los medios, al papel del imperialismo y a otras cuestiones generales que no consiguen explicar el fenómeno y lo atribuyen o bien a causas exógenas o a fenómenos como las redes sociales que no explican nada. La Revolución Francesa no fue consecuencia de la expansión de la imprenta, ni la rusa fue hija de la electricidad o del cine, aunque estos desarrollos tecnológicos tuvieron su influencia.

Por otro lado, el capitalismo no fue siempre igual. No siempre pretendió eliminar a camadas enteras de la sociedad, como aspira hacerlo en estos tiempos. Hubo periodos en los cuales las clases dominantes buscaron integrar a las “clases peligrosas”, y a esa política la denominamos estados del bienestar. Ahora se trata de explicar porqué han pasado de la integración a la segregación, para fantasear luego con el exterminio.

Para comprender el nazismo y el fascismo, Karl Polanyi se remontó a la Inglaterra de los siglos XVIII y XIX, analizando en detalle el cercamiento de los terrenos comunales (enclosures) en favor de los terratenientes. Ese proceso fue clave para promover la modernización, “liberando” a los campesinos de la tierra de la que fueron expulsados, sin más opción que ofrecer sus brazos a la naciente industria.

Pero la proletarización del campesinado fue un proceso traumático, que desarticuló la sociedad inglesa, como destaca Polanyi en La gran transformación, publicado en 1944. Con datos económicos, sociológicos y antropológicos, el autor concluye que el liberalismo económico

y su “mercado autorregulado”, destruyeron los cimientos materiales y espirituales de las sociedades.

En sus propias palabras, la economía de mercado procedió a “la demolición de las estructuras sociales para obtener mano de obra”, y de las ruinas de la vida comunitaria nació la tentación fascista.

Las ultraderechas actuales tienen otra genealogía, aunque es evidente que hay puntos en común. Quiero destacar algunos aspectos que muestran las diferencias con el fascismo de los años 30 del siglo pasado y señalan también la necesidad de hurgar en nuestras sociedades para entender la deriva en curso.

Uno, el extractivismo expulsa a la mitad de la población (según regiones más o menos) de una vida digna, incluyendo salud, educación, vivienda, agua y seguridades mínimas. Esa población a la intemperie, debe ser controlada con nuevos modos: masificación de cámaras de seguridad, militarización, feminicidios, bandas de narcotraficantes, milicias parapoliciales, entre las más conocidas formas legales e ilegales.

Dos, el tipo de Estado que corresponde a este sistema de acumulación por despojo/cuarta guerra mundial, es el Estado policial, con sus correspondientes campos de concentración para los de abajo. Quien crea que exagero, que observe los entornos de la gran minería, de las megaobras de infraestructura y de los monocultivos, donde esto ya funciona. ¿Qué son las barriadas de las periferias urbanas, sin agua pero con abundancia de hombres armados, sino campos de concentración?

Tres, este sistema desborda violencia estructural, machista y racista, por todos sus poros. Sugiero dos lecturas. El reportaje de Katrin Beenhold en The New York Times sobre los varones de extrema derecha en Alemania del este (goo.gl/Y98L51), donde la violencia machista tiene un claro motivo sistémico; y “El laboratorio social de China en Xinjiang”, en Il Manifesto (goo.gl/bH9JTk), donde el poder ejerce “un control capilar” y diabólico sobre la población.

Los varones, desde Alemania hasta Brasil, no se vuelven feminicidas por su genética, sino porque perdieron muchas cosas, como consecuencia de un modo de acumulación que no reconoce fronteras. Entre lo que perdieron, está el “mandato de masculinidad”, que analiza Rita Segato.

Cuatro, este sistema extractivo de guerra no puede ser desmontado paso a paso, ni desde adentro, porque sus instituciones no funcionan para la sociedad sino contra ella. No son las instituciones que conocimos durante el periodo del desarrollismo y el estado del bienestar que protegían a los ciudadanos. Las de ahora lo parasitan, en particular a quienes viven en la zona del no-ser: pobres y descartables, mujeres y jóvenes.

